

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2008/6/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko otsailaren 20koa, 97/67 (EE) Zuzentaraua aldatzen duena, Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatuaren burutzapen erabatekoari dagokionez.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DIRECTIVA 2008/6/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 20 de febrero de 2008, por la que se modifica la Directiva 97/67/CE en relación con la plena realización del mercado interior de servicios postales comunitarios» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 52/3 de 27/2/2008*)

ZUZENTARAUAK

2008/6/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko otsailaren 20koa,

97/67/EE Zuzentaraia aldatu duena, Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatuaren burutzapen erabatekoari dagokionez

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 47. artikulua 2. paragrafoa eta 55. eta 95. artikulua aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena¹ aztertu dute,

Eskualdeetako Komitearen Irizpena² aztertu dute,

Tratatuaren³ 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki,

Honako hauek hartu dira kontuan:

- (1) Kontseiluak, 1994ko otsailaren 7an Erkidegoko posta-zerbitzuen garapenari buruz emandako Irizpenean⁴, hauxe finkatu zuen erkidegoko politikaren helburu nagusizat: pixkanaka eta modu kontrolatua posta-merkatuko lehian sartzea eta, aldi berean, zerbitzu unibertsalean prestazio iraunkorra eskaintzea.

¹ C 168 EO, 2007-07-20koa, 74. or.

² C 197 EO, 2007-08-24koa, 37. or. Nahitaezkoa ez zen kontsultaren ondorioz emandako irizpena.

³ Europako Parlamentuaren 2007ko uztailaren 11ko Irizpena —oraingok ez da Egunkari Ofizialean argitaratu—, Kontseiluaren 2007ko azaroaren 8ko Jarrera Bateratua —C 307 E EO, 2007-12-18koa, 22. or.— eta Europako Parlamentuaren 2008ko urtarrilaren 31ko Jarrera.

⁴ C 48 EO, 1994-02-16koa, 3. or.

- (2) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1997ko abenduaren 15eko 97/67/EE Zuzentaraia⁵, Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatua garatzeko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko baterako arauari buruzkoak, posta-sektorerako arau-esparrua ezarri zuen Erkidego osorako. Besteak beste, zerbitzu unibertsalaren prestazioa bermatzeko neurriak eta gehieneko mugak —gero eta txikiagoak, estatu kideek zerbitzu unibertsalaren hornitzaileari edo hornitzailei zerbitzu horri eusteko eska diezaieketen posta-zerbitzuei dagokienez— finkatzen zituen, bai eta egutegia ere, merkatua gehiago liberalizatzeko erabakiak hartu eta posta-zerbitzuen barne-merkatua sortzeari begira.

- (3) Tratatuaren 16. artikuluan, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuek Europar Batasunaren balio erkideen artean duten lekua nabarmentzen du, bai eta gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatzeko duten zeregina ere. Halaber, zerbitzu horiek beren zeregina betetzea ahalbidetuko dieten printzipio eta baldintzei jarraiki jardun dezaten zaindu behar dela ere badiu artikulua horrek.

- (4) 2005eko urriko 219. Eurobarometro bereziak interes ekonomiko orokorreko zerbitzuen zeregin positiboa nabarmendu zuen. Han jasotzen zenez, inkestaren %77k posta-zerbitzuen iritzi positiboa zuen, eta, beraz, EBko erabiltzaileek gehien estimatzen duten interes ekonomiko orokorreko zerbitzua da.

- (5) Komunikatzeko eta informazioa trukatzeko funtsezko tresna diren heinean, posta-zerbitzuek eginkizun erabakigarria dute, Europar Batasunaren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa helburuak lortzen laguntzen baitute. Lurralde- eta gizarte-hedadura dute posta-sareek, eta tokiko oinarritzko zerbitzuetarako sarbide unibertsala eskaintzen dute.

- (6) Posta-zerbitzuen alorrean hartuko diren neurriek Tratatuaren 2. artikulua Europako Erkidegoaren berezko funtzioztat ezartzen dituen helburuak lortzea izango dute helburu, hala nola: Erkidegoko jardura ekonomikoetan garapen harmoniatsua, orekatua eta iraunkorra sustatzea; enpleguan eta

⁵ L 15 EO, 1998-01-21ekoa, 14. or. Zuzentaraia hori 1882/2003 (EE) Erregelamenduak —L 284 EO, 2003-10-31koa, 1. or.— aldatu zuen azkenekoz.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

gizarte-babesean maila handia lortzea; hazkunde iraunkor eta ez-inflazionista izatea; lehiakortasun handia eta ekonomia-emaizten elkarganatzea erdiestea; bizi-maila eta -kalitatea handitzea; arlo ekonomikoa eta soziala bateratzea; eta estatu kideen arteko elkartasuna ahalbidetzea.

- (7) Azken urteotan, Europako posta-merkatuek aldaketa handiak bizi izan dituzte, teknologiaren aurrerapenek eta erregularizazioa deuseztatzearen ondoriozko lehia handiagoak bultzaturik. Globalizazioaren eraginez, funtsezkoa da jarrera aktiboa eta garapenaren aldekoa hartzea, Europar Batasuneko herritarrei aldaketa horien abantailaz baliatzea ahalbidetzeko.
- (8) Lisboako strategiaren bitarteko berrikuspenaren gaineko ondorioetan, Europar Kontseiluak, 2005eko martxoaren 22an eta 23an egin zen bilkuran, nabarmendu zuen, batetik, barne-merkatua hazkundera bideratzeko eta lanpostu gehiago eta hobeak sortzeko erabiltzearen garrantzia, eta, bestetik, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuek ekonomia dinamiko eta lehiakorrean duten zeregin funtsezkoa. Ondorio horiek komunikatzeko, merkataritzarako eta gizarte- eta lurralde-kohesioa lortzeko funtsezko bitartekoa izaten jarraitzen dute posta-zerbitzuetarako.
- (9) Posta Zuzendaraua¹ aplikatzeari buruzko 2006ko otsailaren 2ko Ebazpenean, posta-zerbitzuak eraginkorrak izatearen garrantzia eta Lisboako strategiaren baitan betetzen duten funtsezko zeregina nabarmendu zuen Europako Parlamentuak. Jakinarazi zuenez, gaurdaino hartu diren neurriek bilakaera positiboa eta esanguratsua ekarri dute posta-sektorerara, kalitatea eta eraginkortasuna irabazi baitu eta erabiltzailearen beharrei gehiago erreparatzen baitie. Zerbitzu unibertsalen inguruko betebeharrak estatu kideetan bilakaera dibergentea izaten ari zirela ikusirik, hauxe eskatzen zion Europako Parlamentuak Batzordeari Ebazpenean: etorkizunari begirako azterlana egitean, zerbitzu unibertsalaren kalitatean eta etorkizuneko finantzaketan jar zezala arreta, eta, azterlan horren baitan, zerbitzu unibertsalarentzat definizio, aplikazio-eremu eta finantzaketa-formula egokiak proposa zitzala.
- (10) 97/67/EE zuzendarauak araututakoari jarraiki, etorkizunera begirako azterlana egin da, Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatuaren burutzapen erabatekoak estatu kide bakoitzaren 2009ko zerbitzu unibertsalean izango dituen ondorioak ebaluatzeko. Erkidegoko posta-sektorearen azterketa sakona ere abiatu du Batzordeak. Horren baitan, sektorearen ekonomia-, gizarte- eta teknologia-bilakaerari buruzko azterlanak egiteko eskatu du, eta interesdunei kontsulta zehatzak egin dizkie.
- (11) Etorkizunera begirako azterlanean jasota dagoenez, oinarriko helburua, hau da, 97/67/EE Zuzendarauari jarraiki estatu kideek finkatutako kalitate-irizpideak beteko dituen zerbitzu unibertsala eten barik eskaini ahal izatea, bermatuta dago Erkidego osoan, hemendik eta 2009ra bitartean, eta horretarako ez dago sektore berezi bat egoteko beharrik.
- (12) Posta-merkatuen lehia pixkanaka eta mailaka sartzeak behar adina denbora eman die zerbitzu unibertsalaren hornitzaileei, merkatu-baldintza berrietan epe luzeako bideragarritasuna bermatzeko berregituratze-neurriak hartu ahal izateko. Halaber, arautegiak irekitasun handiagoko egoerara moldatzeko aukera eman die estatu kideei. Bestalde, transposizioaren epeak eta benetako lehia lortzeko behar den epe luzeak eskaintzen duten aukeraz balia daitezke estatu kideak, behar izanez gero zerbitzu unibertsalaren hornitzaileak modernizatu eta berregituratzeko.
- (13) Sektore erreserbatuak ez duela zertan zerbitzu unibertsala finantzatzeko konponbide nagusia izan adierazten du, halaber, etorkizunera begirako azterlanak. Balorazio horrek bi alderdi hartzen ditu aintzat: batetik, barne-merkatua eraikitzeak Erkidegoarentzat eta estatu kideentzat duen interesa eta, bestetik, barne-merkatuak hazkundera eta lana sortzeko eta erabiltzaile guztiek interes ekonomiko orokor eraginkorreko zerbitzua jasotzen dutela bermatzeko duen gaitasuna. Horrenbestez, posta-zerbitzuen barne-merkatua egituratzeko behin betiko data berrestea komeni da.
- (14) Indar ugari dago posta-zerbitzuen sektorean aldaketak bultzatzen, batik bat, erabiltzaileen eskaria eta bilakaera, antolamendu-aldaketak, automatizazioa eta teknologia berriak, ordezko komunikabide elektronikoak eta merkatuaren irekitzea. Lehiakideei eta kontsumitzaileen eskaera berriei aurre egiteko eta finantzaketa-iturriak bermatzeko, posta-zerbitzuen hornitzaileek jarduera dibertsifikatu dezakete, merkataritza elektronikoko zerbitzuak edo informazioaren gizarteko beste zerbitzu batzuk eskainiz.
- (15) Posta-zerbitzuen hornitzaileak, izendatutako zerbitzu unibertsaleko hornitzaileak ere bai, eraginkortasuna hobetzera behartu dituzte ohiko posta-zerbitzuekin zerikusirik ez duten lehiakortasun-erronka berriek (digitalizazioak eta komunikabide elektronikoak, adibidez). Horrek, berez, lehiakortasuna handitzea ekarriko du.
- (16) Merkatua erabat irekitzeak posta-merkatuen bolumen

¹ C 288 EO, 2006-11-25, 77. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

orokorra hedatzea ekarriko du. Gainera, zerbitzu unibertsalen hornitzaileen artean enplegu iraunkor eta kalitatezkoari eusten lagunduko du, eta beste operadore batzuetan lanpostuak sortzea eta merkatuan nahiz zerikusia duten sektore ekonomikoetan partaide gehiago sartzea ahalbidetuko du. Zuzentarau honek ez dio posta-zerbitzuen sektoreko enpleguaren baldintzak arautzeko estatu kideek duten eskuduntzari eragiten, baina horrek ez du bidegabeko lehia ekarri behar. Posta-zerbitzuen merkatua irekitzeko prestatze-lanetan, oso kontuan hartu behar dira alderdi sozialak.

- (17) Garraio hutsa ez da posta-zerbitzutat hartuko. Iragarkiek, publizitate-materialak edo marketinak bakarrik osatutako zuzeneko publizitatea korrespondentzia-bidalketatzat har daiteke, mezu bera badu, hartzailearen izena, helbidea eta identifikazio-zenbakia izan ezik.
- (18) Lehiakortasuna handitzeak, gainera, beste komunikazio-bitarteko batzuekin bat egiteko eta gero eta erabiltzaile zorrotzagoari eskaintzen dion zerbitzua hobetzeko aukera eman behar dio posta-sektoreari.
- (19) Besteak beste uharte- eta mendi-lurraldeetako posta-sare landatzeak funtsezko zeregina dute, enpresak ekonomia nazionallean eta orokorrean sartzeari eta gizartearen eta enpleguaren kohesioari eusteari begira. Orobat, eremu urrunetako posta-bulego landatzeak sare-azpiegitura garrantzitsua eskaini dezakete, komunikazio elektronikoko zerbitzu berrietara iristeko.
- (20) Alboko komunikazio-merkatuak garatzeak askotariko eragina izan du Erkidegoko eskualdeetan, biztanle multzoetan eta posta-zerbitzuen erabileran. Ezinbestekoa da lurralde- eta gizarte-kohesioa zaintzea, eta 97/67/EE zuzentarauaren malgutasuna baliatuz estatu kideek zerbitzuaren zenbait ezaugarri tokiko eskarira egokitzariki dutenez, zerbitzu unibertsalari eta 97/67/EE zuzentarau horrek ezartzen dituen kalitate-betekizunei osotasunean eustea komeni da. Argitu beharra dago, baita ere, indarreko jardunbideari jarraiki, estatu kideek nazioko legerian jaieguntzat jota ez dauden lanegunetan bakarrik bermatu behar dutela posta jaso eta entregatzea. Merkatua irekitzeak erabiltzaile guztiei on egiten jarrai dezan, batez ere kontsumitzaileari eta enpresa txiki eta ertainei, merkatuaren bilakaera jagon eta gainbegiratu behar dute estatu kideek. 97/67/EE Zuzentarauan ezarritakoari men eginez, beharrezko neurri arautzaileak ezarri behar dituzte, posta-zerbitzuek erabiltzaileen beharrei erantzun diezaieten. Besteak beste, honako hauek ziurtatu behar dituzte: eremu berean gutxieneko zerbitzu kopuru bat ematen dela eta, bereziki, landa-eremuetan eta urrun daudenetan posta-zerbitzuetara jotzeko puntu kopuru egokia dagoela.

- (21) Zerbitzu unibertsalak hauxe bermatzen du hasteko: posta pertsona fisiko eta juridiko guztien etxean jaso eta entregatuko dela lanegun guztietan, baita urrun dauden edo biztanle gutxi dituzten eremuetan ere.
- (22) Kalitate handiko posta-zerbitzuen eskaintza oso lagungarria da gizarte- eta lurralde-kohesioa lortzeko. Zehazki, merkataritza elektronikoa bizitza ekonomikoan parte hartzearen aukera ematen die urrun dauden eta biztanle gutxi dituzten eskualdeei; hortaz, posta-zerbitzu egokiak ematea baldintza garrantzitsua da.
- (23) 97/67/EE zuzentarauaren arabera, zerbitzu unibertsalak emateko zerbitzu unibertsalen hornitzaileak izendatzea komeni da. Zerbitzu unibertsala lurralde osoan ematea eskatu ahal izango dute estatu kideek. Lehia eta aukerak handitzearen ondorioz, estatu kideek malgutasun handiagoz jokatu behar dute, zerbitzu unibertsala emateko zer bitarteko den eraginkorra eta aproposena erabakitzean. Betiere, objektibotasuna, gardentasuna, ez diskriminatzea, proportzionaltasuna eta merkatua ahalik eta gutxien distorsionatzea hartu beharko dituzte kontuan, ezinbesteko baldintzak baitira, barne-merkatuan posta-zerbitzuak eman nahi badira. Estatu kideek hauetako sistema bat (edo hainbat) erabil dezakete: zerbitzu unibertsala merkatuko indarren bidez ematea, zerbitzu unibertsalaren hainbat elementu eskaintzen dituen edo lurraldearen zenbait eremutara heltzen den enpresa bat edo hainbat izendatzea eta zerbitzuak modu publikoan kontratatzea.

Estatu kideak enpresa bat edo hainbat izendatzea erabakitzen badu zerbitzu unibertsala emateko edo zerbitzu unibertsalaren hainbat elementu eskaintzeko, zerbitzu unibertsalaren berezko kalitate-baldintzak gardentasun osoz bete beharko dira, eta zerbitzu unibertsalen hornitzaileekiko proportzionaltasuna zainduz. Estatu kideak enpresa bat baino gehiago izendatzen baditu, zerbitzu unibertsalaren betebeharretan gainezarpenik ez dela gertatuko bermatu behar du.

- (24) Erabiltzaileek informazio erabatekoa izan behar dute, ematen diren zerbitzu unibertsalez, eta posta-zerbitzuen hornitzaileek zerbitzu unibertsalaren hornitzailearen nahiz hornitzaileen eskubideak eta eginbeharrak ezagutu behar dituzte. Gainera, estatu kideek egiaztatu egin behar dute, une oro, emandako zerbitzu zehatzen ezaugarriak eta horietara jotzeko aukerak ezagutzen dituztela erabiltzaileek. Estatu kideen ardura da informazio hori eskura izatea. Alabaina, estatu kideei eman zaien malgutasun handiagorekin bat, zerbitzu unibertsala hornitzaile bat edo hainbat izendatzearen bidez barik, beste nolabait bermatzea komeni da, informazio hori jendeari nola jakinarazi erabakitzean estatu kideek malgutasun handiagoz joka dezaten.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (25) Egindako azterlanak ikusita eta posta-zerbitzuen barne-merkatuak eskaintzen duen potentzial osoa mugitzeko asmoarekin, utzi egin behar zaio zerbitzu unibertsalaren finantzaketa bermatzeko bitarteko gisa sektore erreserbatu bat eta eskubide bereziak erabiltzeari.
- (26) Estatu kide batzuetan, akaso, beharrezkoa izango da kanpora jotzea, zerbitzu unibertsalaren hondar-kostu garbiak finantzatzeko. Hortaz, halakorik gertatzen denean, espresuki argitu behar dira, zerbitzu unibertsalaren finantzaketa bermatzeko eskura dauden aukerak, eta beharra egoki justifikatu beharko da. Estatu kideek askatasuna izango dute zer finantzaketa-bitarteko erabili erabakitzeko. Aukera horien artean, kontratazio publikora jotzea dugu bat. Barne hartzen ditu, batetik, kontratazio publikoari buruzko zuzentarauean ezarrita dauden elkarrizketa lehiakorra eta prozedura negoziatua (aurretiatzko lizitazio-deialdiarekin edo gabe), eta, bestetik, zerbitzu unibertsalaren eginbeharrek zerbitzu unibertsalaren kostu garbiak eskatzen dituztenean eta izendatutako enpresarentzat bidegabeko zama direnean, konpentsazio publikoa eta kostuak zerbitzu-hornitzaileen, erabiltzaileen edo bien artean banatzea, gardentasunez, konpentsazio-fondo batera ekarpenak eginez. Estatu kideek Erkidegoko zuzenbideak baimentzen dituen beste finantzaketa-bitarteko batzuetara jo dezakete. Esate baterako, behar izanez gero, zerbitzu unibertsalaren hornitzailearen edo hornitzaileen beste jarduera batzuen mozkinak erabili ahal izango dituzte, nahiz eta zerbitzu unibertsalean sartuta ez egon, zerbitzu horren kostu garbi guztiak edo batzuk finantzatzeko; edonola ere, erabakiak bateragarria izan behar du Tratatuarekin. Estatu kideek estatuek emandako laguntzei buruz Tratatuak araututakoa bete behar dute, besteak beste, alor horretako jakinarazpen-baldintzak. Dena den, aukera izango dute Batzordeari zerbitzu unibertsalaren kostu garbiak estaltzeko zer finantzaketa-bitarteko erabili duten azaltzeko. Batzordeak horren berri emango die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, 97/67/EE Zuzentarauaren aplikazioari buruz aldian behin aurkeztu behar dizkien txostenetan.
- (27) Konpentsazio-fondoetan kotizatzekeo zer enpresari eska diezaioketen zehazteko, enpresa horiek ematen dituzten zerbitzuak erabiltzailearen ikuspegitik zerbitzu unibertsalaren barruko zerbitzutzat har daitezkeen ebaluatu behar dute estatu kideek. Zerbitzuon ezaugarriak (balio erantsia barne) eta helburuak nahiz tarifak aintzat hartuta zerbitzu unibertsalarekin trukatzeko modukoak direnak sartuko dira multzo horretan. Zerbitzu horiek ez dute zertan zerbitzu unibertsalaren ezaugarri guztiak bete; adibidez, egunero entregatzea eta lurralde osoari erantzun beharra.
- (28) Enpresok kasuan kasuko estatu kideko zerbitzu unibertsalaren kostuan egin behar duten ekarpena zehazterakoan proportzionaltasun-printzipioa zaintzeko, irizpide garden eta bereizkeriarik gabeak aplikatu behar dituzte estatu kideek, enpresok estatu kide horretako zerbitzu unibertsalaren barruan sartzen diren jardueretan duten kuota, esaterako. Konpentsazio-fondo batean kotizatzekeo betebeharra duten hornitzaileei kontuak egoki bereiztekeo eska diezaioketen estatu kideek, fondoak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko dute-eta horrela.
- (29) Erabiltzen den finantzaketa-bitarteko orok 97/67/EE Zuzentarauan ezarrita dauden gardentasunaren, diskriminaziorik ezaren eta proportzionaltasunaren printzipioei erantzun behar die une oro, eta arlo horretan hartutako erabakiek irizpide garden, objektibo eta egiaztatgarrietan oinarritu behar dute. Zehazki, zerbitzu unibertsalaren kostua kalkulatzeko, zerbitzu unibertsala emateko izendatuta dagoen hornitzailearentzat zerbitzu unibertsalaren eginbeharrekin jarduteak duen kostu garbiaren eta eginbehar horien pean ez jarduteak duenaren arteko aldea ateratzen da. Prozesu hori araugintzako agintaritzan nazionalak gainbegiratu du. Kalkulu horretan, egokitzen josten den beste edozein elementu ere hartu behar da kontuan, hala nola, zerbitzu unibertsala emateko izendatu den hornitzaileak merkatuan dituen abantailak, arrazoizko mozkina lortzeko eskubidea eta kostuetan efizientzia lortzeko helburua duten pizgarriak.
- (30) Estatu kideek beren lurraldean publikoaz bestelako zerbitzu osagarriren bat eskaintzea erabakitzen badute, horiek ez dira enpresa jakin batzuk kotizatzea behartzen dituzten konpentsazio-mekanismoen menpe geratuko. Zerbitzu unibertsalaren eginbeharrek dituzten zerbitzuak — Zuzentaru honetan zehaztuta daude— ez dira multzo horretan sartzen, besteak beste, pentsioen kobrantza eta landa-eremuetan postazko igorpenak banatzea. Bidezkoa denean, estatu kideek finantzatu egin ditzakete zerbitzu osagarri horiek, estatuek emandako laguntzei buruz Tratatuak emandako arauak jarraiki. Zerbitzu unibertsalaren hornitzailearen edo hornitzaileen kasuan salbu, agintariek ez dute zerbitzu osagarri horiek eman beharrik.
- (31) Estatu kide batzuei Zuzentaru aplikatzeko data epe jakin batez atzeratzeko aukera eskaintzea komeni da, zerbitzu unibertsala emateko duten hornitzaileari (edo hornitzaileei) zerbitzuak erreserbatzen jarraitzeko aukera izan dezaten. Honako hauek sartzen dira multzo horretan: Erkidegoko posta-zerbitzuen eskumenak irekitzen jarraitzeko asmoarekin 97/67/EE Zuzentaru aldatu zuen 2002ko ekainaren 10eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/39/EE Zuzentaru¹ indarrean sartu ondoren Batasuneratu ziren estatu kideak, erreforma-prozesua berandu batean hasi dutelako posta-merkatuak pixkanaka egokitzeko zailtasun bereziak dituztenak; biztanleri txikiagoa edo hedadura mugatua duten estatu kide batzuk, posta-zerbitzuak eskaintzeko ezaugarri jakin batzuk badituzte; eta erliebe malkartsuko lurraldea dutenak nahiz uharte kopuru handia dutenak. Batzordeak, baina, jakinaren gainean egon behar du beti. Aukera hori ez denez ohikoa, komeni da, era berean, epe mugatu horren barruan eta

¹ L 176 EO, 2002-07-05ekoa, 21. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

zerbitzu mugatu batzuetarako, merkatuak erabat ireki dituzten estatu kideei baimena ematea beste estatu kide batean jarduten duten monopolioei beren lurraldean jarduteko baimena uka diezaieten.

- (32) Batzordeak laguntza eskaini behar die estatu kideei, Zuzentarau hau betetzeko hainbat alderditan, besteak beste, kostu garbiak kalkulatzeko. Gainera, zuzentarau hau bateratasunez aplikatu ahal izateko, agintari arautzaile nazionalak lankidetzan jardun behar dute alor horretako adierazle eta orientabideak arautzean.
- (33) Estatu kideek ahalmena izan behar dute, banakako lizentziak baimendu eta emateko prozedura orokorrak aplikatu ahal izateko, justifikatuta badaude eta lortu nahi den helburuarekiko proportzionalak badira. Dena delarik ere, 97/67/EE Zuzentaruaren aplikazioari buruzko hirugarren txostenean adierazienez, baldintzak bateratuagoak izatea komeni da, barne-merkatuan zerbitzuak ematean arrazoirik gabeko oztupoak murriztu nahi badira. Horrela, bada, estatu kideek aukera izan behar dute, adibidez, posta-zerbitzuen hornitzailei zerbitzua ematearen eta zerbitzua beste hornitzaile batek ematen duenean haren kostuak finantzatzeko laguntzearen artean hauta dezaten uzteko. Alabaina, ez dute baimenik izan behar, aldi berean bi egin behar hauek inposatzeko: hain zuzen ere, banaketa-mekanismo bati ekarpenak egitea eta helburu bera duen zerbitzu unibertsala edo kalitatezko zerbitzua bete beharra. Argitu beharra dago, orobat, baimen orokorrei eta lizentziei buruzko xedapen batzuk ez zaizkiela zerbitzu unibertsala emateko izendatutako hornitzaileei aplikatu behar.
- (34) Unibertsaltzat jotako zerbitzuak hainbat posta-enpresak eskaintzen badituzte, estatu kide guztiak ebaluatu egin behar dute ea posta-azpiegituraren zenbait elementu edo zerbitzu unibertsalaren hornitzaileek eman ohi dituzten zerbitzu batzuk eskura izan behar dituzten antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten beste operadore batzuek. Horrela, benetako lehia ahalbidetzeaz gain, erabiltzaileak babestuko lirateke, posta-zerbitzuaren kalitate orokorra bermatzearen bidez. Zerbitzu unibertsalaren hainbat hornitzaile badaude eskualdeko posta-sareekin, orduan ere estatu kideek ebaluatu egin behar dute, eta, beharrezkoa izanez gero, bermatu elkarreaginkortasuna lortzeko gai diren, posta-bidalketen garraioa azkar egiten dela bermatzeko. Elementu edo zerbitzu horien egoera juridikoa edo merkatukoa estatu kide guztietan berdina ez denez, kostuen banaketa arautzeko tresnaren beharra, irispidea eta egitura erabakitzeke eskatzea komeni da estatu kideei. Xedapen hori gorabehera, ez da ahaztu behar estatu kideek eskubidea dutela, posta-sarera gardentasunez eta bereizkeriarik gabe sartzen direla bermatze aldera, hartu beharreko neurriak hartzeko.
- (35) Posta-zerbitzuen hornitzaileek, 97/67/EE Zuzentaruari jarraiki datu pertsonalak erabiltzean, datu pertsonalen babesari buruzko Erkidegoko eta dagokion estatuko xedapenak aplikatzen dituztela zaindu behar dute estatu kideek. Arreta berezia eskainiko diete Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentaruak agindutakoiei. Datu pertsonalen tratamenduaren eta datu horien joan-etorri askearen inguruan pertsona fisikoak babesteaz dihardu Zuzentarau horrek¹.
- (36) Zuzentarau honetako xedapenak aintzat hartzean, ezin dira zerbitzu unibertsalaren antolamenduaren desjabetze-baldintzak arautzen dituzten estatu-mailako xedapenak ahaztu.
- (37) Itsuentzat eta ikusmen murriztukoentzat posta-zerbitzuek duten garrantzia dela eta, merkatua irekitzeko ez du galarazi behar zerbitzu unibertsalaren hornitzaileak edo hornitzaileek itsuei eta ikusmen murriztukoiei zuzendutako doako zenbait zerbitzu ematen jarraitzea; izan ere, alor horretako nazioarteko obligazioak betetzeko finkatu zituzten estatu kideek zerbitzuok.
- (38) Lehia beteko egoeretan, zerbitzu unibertsalaren finantza-oreka bermatu eta merkatuaren bihurtura mugatzekotan, prezioek interes publikoa babesteko helburu hutsez merkataritza-baldintza eta -kostu normalak islatzearen printzipioa albo batera uztea komeni da. Horretarako, prezioa aleko finkatzen zaien bidalketetan, hau da, kontsumitzaileek —enpresa txiki eta ertainak barne— gehien erabiltzen dituzten zerbitzuetan, tarifa bakarrak izateko aukera eman behar zaie estatu kideei. Beste posta-bidalketa batzuetan ere izan ditzakete estatu kideek tarifa bakarrak, prentsa eta liburuak banatzeko egunerokoetan adibidez. Interes publiko orokorra babestu gura da horrela, hala nola: kulturarako sarbidea, sozietate demokratikoan parte hartzea (prentsa-askatasuna) eta eskualde- eta gizarte-kohesioa.
- (39) Erabiltzaile guztiei zuzendutako zerbitzuen kasuan, zerbitzu unibertsalaren hornitzaileek malgutasun handiagoz jokatu ahal izango dute prezioetan, kostua aintzat hartzeko printzipioari jarraiki. Enpresak, bidalketa masiboen banatzaileak eta hainbat erabiltzailearen bidalketak biltzen dituzten bateratzaileak ere sartuko dira multzo horretan. Tarifetan, ohiko zerbitzuei dagokienez saihestu diren kostuak hartu behar dira kontuan. Ohiko zerbitzuen artean ditugu banakako posta-bidalketak bildu, sailkatu, garraiatu eta entregatzeko guztiak.

¹ L 281 EO, 1995-11-23koa, 31. or. Zuzentarau hori 1882/2003 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

40) Lehia beteko egoeretan zerbitzu unibertsalaren hornitzaile historikoaren baldintzak arautzean estatu bakoitzak bere berezitasunak dituela kontuan harturik, dirulaguntza gurutzatuak gainbegiratzeko modurik onena zein den estatu kideek erabaki dezaten uztea da egokiena.

(41) Merkatu erabat lehiakorrekako trantsizioan begiak jarrita eta dirulaguntza gurutzatuak lehiak kontrako eraginik izan ez dezaten, zerbitzu unibertsalaren hornitzaileek kontuak berezita eta gardentasunez eraman ditzatela, eta, beraz, beharrezko egokitzapenak egin ditzatela eskatuko zaie estatu kideei.

Eginbehar hori dela eta, araugintzako agintari nazionalak, lehiaren alorreko agintariak eta Batzordeak beharrezko informazioa izango dute, zerbitzu unibertsalaren inguruko erabakiak hartzeko eta lehia errealitate bihurtu arte merkatuaren baldintzak egokiak direla zaintzeko. Araugintzako agintari nazionalak lankidetzan jarduten badute alor horretako adierazle eta orientabideak arautzen, xedapen hauek bateratasunez aplikatu ahal izango dira.

Kontuak berezita eta gardentasunez eramanez gero, estatu kideek eta araugintzako agintari nazionalak behar bezala zehaztutako kontabilitate-informazioa izango dute, honako hauetarako:

- Zerbitzu unibertsalari buruzko erabakiak hartzeko.

- Zerbitzu unibertsalaren alorrean xedatutako eginbeharrek kostu garbia duten eta zerbitzu unibertsalaren hornitzailearentzat bidegabeko finantzazama diren zehazteko.

- Zerbitzu unibertsalari aplikatutako tarifek Zuzentarau honetan finkatu diren printzipioak betetzen dituztela bermatzeko.

- Zuzentarau honetan ezarritako gastu terminalen gaineko printzipioak betetzen direla bermatzeko.

- Lehia errealitate bihurtu bitartean merkatuaren baldintzen ekitatea gainbegiratzeko.

(42) Zerbitzuen sektoreko beste alor batzuetan indarrean dauden xedapenekin bat eta kontsumitzailearen babesa areagotzeko helburuz, erreklamazio-prozeduren inguruko gutxieneko

printzipioen aplikazioa ez da zerbitzu unibertsalaren hornitzaileetara mugatu behar. Erreklamazioak izapidetzeko prozeduren eraginkortasuna handitzearen, judizioz kanpoko prozeduretara jotzea komeni da. Honako hauek hartuko dira kontuan: Batzordearen 1998ko martxoaren 30eko 98/257/EE Gomendioa¹, kontsumo-gaietako gatazken judizioz kanpoko irtenbideen ardura duten organoei aplikatzeko printzipioei buruzkoa, eta Batzordearen 2001eko apirilaren 4ko 2001/310/EE Gomendioa², kontsumo-gaietako gatazka adostasunez ebazteko judizioz kanpoko organoei aplikatzeko printzipioei buruzkoa. Azpiegituraren elementu batzuk eta zenbait zerbitzu eskuratzearen ondorioz eta araugintzako agintari nazionalen eta kontsumitzailea babesteko erakundeen artean lankidetzatza egoteko beharrenden ondorioz, operadoreen elkarreaginkortasuna areagotzeak on egingo die kontsumitzaileen intereseei ere.

Posta-bidalketak lapurtu, galdu edo narriatzen badira erabiltzaileen interesak babeste aldera, estatu kideek errenboltsorako eta/edo konpentsaziorako sistema bat erabili behar dute, bidezkoa denean.

(43) 97/67/EE Zuzentarauaren arabera, zenbait neurri Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari³ jarraiki onartu behar dira. Batzordeari esleituriko betearazpen-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen ditu Erabaki horrek.

(44) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen. Horren bidez, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera onetsitako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko irispide orokorreko neurriak hartzeko kontrolpeko arautze-prozedura finkatu zen. Kasu batzuetan, horietako elementu batzuk ezabatu ziren eta, beste batzuetan, funtsezkoak ez diren beste elementu batzuekin osatu egintza.

(45) Bereziki, Batzordeari eskumenak ematea komeni da, zerbitzuaren kalitateari buruzko arauak aurrerapen teknikoetara eta merkatuaren bilakaerara doitzeko neurriak har ditzan. Kanpoko erakundeek funtzionamenduari egindako kalitate-kontrol independenteari aplikatzekoak diren baldintza normalizatuaren inguruan ere egin beharko dira doikuntzak. Irispide orokorreko neurriak direnez eta 97/67/EE Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta funtsezkoak ez diren elementuz osatzea dutenez xede, 1999/468/EE Zuzentarauaren 5 bis artikuluan aurreikusita dauden kontrolpeko arautze-prozeduren arabera hartu behar dira.

¹ L 115 EO, 2002-07-05ekoa, 31. or.

² L 109 EO, 2001-04-19koa, 56. or.

³ L 184 EO, 1999-07-17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak —L 200 EO, 2006-07-22koa, 11. or.— aldatu zuen.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (46) 97/67/EE Zuzentarauaren arabera Batzordeari lagunduko dion komiteak estatu kideetan zerbitzu unibertsala nola ematen den gainbegiratu beharko du.
- (47) Araugintzako agintari nazionalen zeregina erabakigarria izaten jarraituko duela dago aurreikusita, batik bat lehia-egoerarako trantsizioa amaitzeko duten estatu kideetan. Arautzeko zereginak eta zeregin operatiboak bereizteko printzipioan oinarrituz, araugintzako agintari nazionalen independentzia bermatu behar dute estatu kideek, haien erabakiak inpartzialak izatea gura badute. Independentzia-baldintza hori gorabehera, estatu kideek autonomia instituzionala eta betebeharrak konstituzionalak izango dituzte, eta Tratatuaren 295. artikuluan ezarrita dagoen estatu kideen jabetza-erregimenari buruzko neutraltasun-printzipioa ere errespetatu beharko dute. Araugintzako agintari nazionalen misioa betetzeko beharrezkoak dituzten baliabideak — langileak, eskumenak eta finantza-bitartekoak — eskura izan behar dituzte.
- (48) Ohikoa izaten da araugintzako eginkizunak hainbat erakunde nazionalen ardura izatea. Hortaz, komeni izaten da zereginak esleitzean gardentasun handiagoz jokatzeko, eta sektorea arautzeaz, eskumen-arauak aplikatzeaz eta kontsumitzailearen babesari buruzkoak aztertzeaz arduratzen diren erakundeek lankidetzara eskatzea, zereginak eraginkortasun osoz betetzen dituztela bermatzeko.
- (49) Araugintzako agintari nazionalen erabakiek ukitutako edozeinek agintaritzaren horrekin zerikusirik ez duen organo baten aurrean errekurtsioa jartzeko eskubidea du. Auzitegi bat izan daiteke organo hori, adibidez. Errekurtsioak, baina, ez die kalterik egingo sistema judizial nazionalen barruko eskumen-banaketari eta zuzenbide nazionalaren arabera pertsona juridiko nahiz fisikoei dituzten eskubideei. Prozedura horiek erabat burutu artean, araugintzako agintari nazionalen erabakien aldi baterako baliozkotasuna bermatu beharra dago, segurtasun juridikoa eta merkatukoa bermatzeko.
- (50) Araugintzako agintari nazionalak, dagokienean, lankidetzan jardun behar dute estatu kideetako araugintzako beste agintari batzuekin eta Batzordearekin, 97/67/EE Zuzentarauari jarraiki dagozkien eskumenak erabiltzerakoan. Horrela, posta-zerbitzuen barne-merkatua garatu egingo da eta zuzentarauaren xedatutakoa estatu kide guztietan koherentziaz aplikatu ahal izango da, batez ere Erkidegoko arautegiaren transposizio-arautegi nazionalak araugintzako agintari nazionalen kasuan kasuko arauak aplikatzeko eskumen-botere nabarmenak ematen dizkien alderdietan. Lankidetzara hori, besteak beste, Zuzentarauaren arabera Batzordeari laguntzen dion komitean edo arautzaile europarrek osatutako taldean eman daiteke. Zuzentarauaren eraginetarako, estatu kideei dagokie
- araugintzako agintari nazionaltzat zer organo hartuko diren erabakitzea.
- (51) Araugintzako agintari nazionalen merkatuko eragileei buruzko informazioa behar dute, beren zeregina eraginkortasunez bideratzeko. Informazio-eskaerak proportzionatuak izango dira, eta ez dira zama handiegia izango enpresentzat. Batzordeak ere behar izango du, agian, informazio hori, Erkidegoko arautegiaren arabera dagozkion eginbeharrak betetzeko. Informazio-hartzaileak konfidentzialtasuna bermatu behar du, indarreko arauak jarraiki.
- (52) Europako Parlamentua eta Kontseilua posta-zerbitzuen barne-merkatuaren bilakaeraren jakinararen gainean egon daitezen, 97/67/EE Zuzentarauaren aplikazioaren gaineko txostenak aurkeztu beharko dizkie Batzordeak.
- (53) Zuzentarau honek ez dio eragiten lan-zuzenbideari, hau da, estatu kideek erkidegoko zuzenbideari jarraiki zuzenbide nazionalaren arabera aplikatzen dituzten enplegu- edo lan-baldintzei buruzko ezin lege- edo kontratu-xedapenak — laneko osasuna eta segurtasuna barne hartuta — edo enplegu-emailearen eta langileen arteko harremanak. Era berean, Zuzentarau honek ez die estatu kideetako gizarte-segurantzako arau nazionalen ere eragiten. Gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioei jarraiki, beharrezkoa denean lan-baldintzak aipa ditzakete estatu kideek euren baimen-prozeduretan.
- (54) Biztanle gutxiko inguruetako eta landa-eremuetako erabiltzaileen beharrei erantzun ahal izateko, sarbide-gune nahikoa ezartzen direla bermatu behar dute estatu kideek. Estatu kideek sarbide-dentsitate egokia bermatu behar dute eremu horietan, zerbitzu unibertsalaren obligazioa bete nahi badute.
- (55) 97/67/EE Zuzentarauaren mugaeguna ezabatu egin behar da, posta-sektorearen arautze-esparruari eusteko. Zuzentarau honek aldatzen ez dituen xedapenak aplikatzekoak dira, oraindik ere. Estatu kideek aplikazio-epean erreserbatuta izan ditzaketen zerbitzuak 97/67/EE Zuzentarauan ageri dira zehaztuta.
- (56) Zuzentarau honen helburuak, hau da, Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatua taxutzea, erabiltzaile guztiei zerbitzu unibertsalean maila bera bermatzea eta posta-zerbitzuak arautzeko baterako printzipioak ezartzea, ezin dituztenez estatu kideek behar bezala bete eta, beraz,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

neurriari eta eraginei erreparatuz, Erkidegoan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuaren 5. artikuluan jasota dagoen subsidiarioritasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Zuzentarau honek helburu horiek lortzeko behar-beharrezkoa baino ez du agintzen.

- posta-zerbitzuak emateko baldintzak

- Erkidegoan posta-zerbitzu unibertala nola eman

- zerbitzu unibertsalak nola finantzatu, etengabe ematen direla bermatzeko

(57) Hortaz, bidezkoa da 97/67/EE Zuzentaraua aldatzea.

- zerbitzu unibertsalaren inguruko tarifen eta kontabilitate-gardentasunaren printzipioak

(58) Zuzentarau hau koherentea da zerbitzuen sektoreari aplikatzekoak diren beste egintza komunitario batzuekin. Gatazka sortzen bada Zuzentarau honetako xedapen baten eta beste egintza komunitario bateko, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauko¹ —barne-merkatuko zerbitzuak arautzen ditu— xedapen baten artean, Zuzentarau honetako xedapenek izango dute lehentasuna, eta oso-osorik aplikatuko dira posta-sektorean.

- zerbitzu unibertala emateko kalitatezko arauak zehaztea eta arau horiek betetzen direla bermatzeko sistema ezartzea

- arau teknikoak bateratzea

- araugintzako agintari nazional independenteak sortzea

2) Bigarren artikulua honela aldatu da:

(59) Zuzentarau honek ez dio Tratatuan lehiakortasunaren eta zerbitzuen prestazio askearen gainean xedatutakoari eragiten. Zerbitzu unibertala finantzatzeko mekanismoetan estatu kide batek emandako laguntzak nahiz edonolako estatu-fondoak sartzen badira, Tratatuaren 87. artikuluan 1. paragrafoan ezarritakoari jarraiki, Zuzentarau honek ez dio Tratatuan estatu-laguntzei buruz xedatutakoa betetzeko estatu kideek duten obligazioari eragingo.

a) Lehen puntuaren ordezkari honako testu hau jarri da:

«1) “Posta-zerbitzuak”: posta-bidalketak bildu, sailkatu, garraiatu eta banatzeko zerbitzuak».

b) Puntu hau erantsi da:

«1 bis) “Posta-zerbitzuen hornitzailea»: posta-zerbitzu bat edo hainbat ematen dituen enpresa».

c) Bigarren puntuan, «posta-sare publikoa» testuaren ordezkari «posta-sarea» jarri da.

d) Hirugarren puntuaren ordezkari testu hau jarri da:

«3) “Sarbidetza-guneak”: instalazio fisikoak, bereziki bide publikoan nahiz posta-zerbitzuaren hornitzailearen edo hornitzaileen lokaletan jendearen eskura dauden postontziak, igorleek posta-bidalketak posta-sarean txertatzeko erabiltzen dituztenak».

e) Laugarren puntuaren ordezkari testu hau jarri da:

«4) “Bilketa”: posta-zerbitzuaren hornitzaileak posta-bidalketak jasotzeko eragiketak».

f) Seigarren puntuaren ordezkari testu hau jarri da:

(60) «Legeak hobeto egin» erakunde arteko hitzarmeneko² 34. puntuaren arabera, estatu kideak beren koadroak finkatzera eta jendaurrean jartzera animatu nahi dira, beren onurarako nahiz Erkidegoaren onurarako; koadro horiek Zuzentarau hau eta transposizio-neurriak bat datozela erakutsi behar dute, ahal den neurrian.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

97/67/EE Zuzentaruaren aldaketa hauek egin dira:

1) Lehen artikuluan, testu hau jarri da:

«1. artikulua

Zuzentarau honek arau komunak xedatzen ditu arlo hauetan:

¹ L 376 EO, 2006-12-27koa, 36. or.

² C 321 EO, 2007-12-31koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«6) “Posta-bidalketa”: posta-zerbitzuaren hornitzaileak garraiatzeko aurkezten den bidalketa —hartzailea adierazten da—; korrespondentziaz gain, beste hainbat ere sartzen dira: liburuak, katalogoak, egunkariak, aldizkariak eta balio komertzialdun nahiz balio komertzial bako salgaiak dituzten posta-paketeak».

g) Zortzigarren puntua ezabatu egin da.

h) Hamabigarren puntua ezabatu egin da.

i) Hamahirugarren puntuaren ordezkari testu hau jarri da:

«13 “Zerbitzu unibertsalaren hornitzailea”: estatu kide batean posta-zerbitzu unibertsala edo horren zati bat ematen duen posta-zerbitzuen hornitzaile publiko nahiz pribatua; horren nortasuna Batzordeari jakinarazten zaio, 4. artikuluari jarraiki».

j) Hamalagarren puntuaren ordezkari testu hau jarri da:

«14 “Baimena”: posta-sektoreari eskubide eta betebeharrak ematen dizkion edozein onespenez eta enpresen posta-zerbitzuak eskaintzea eta, bidezkoa denean, zerbitzu horiek emateko sareak sortu eta/edo ustiatzea, jarraian zehaztutako diren baimen orokorra nahiz banakako lizentzia erabiliz.

- “Baimen orokorra”: posta-zerbitzuen hornitzaileari araugintzako agintari nazionalaren erabaki espliziturik eskatzen ez dion baimena, horrek ematen dituen eskubideak erabiltzeko, berdin dio kategoriako lizentzia batek nahiz zuzenbide orokorrak araututa dagoen edo arautzen duen arautegiak erregistratzeko edo aitortzeko izapideak eskatzen dituen.

- “Banakako lizentzia”: araugintzako agintari nazional batek emandako baimena, posta-zerbitzuen hornitzaileari berariazko eskubideak ematen diona edo enpresaren eragiketarako baimen orokorra osatuko duten eginbeharrak espezifikoen menpe jartzen dituena, posta-zerbitzuen hornitzaileak kasuan kasuko eskubideak erabiltzerik ez duenean, araugintzako agintari nazionalaren erabakia jaso bitartean».

k) Hamazazpigarren puntuaren ordezkari testu hau jarri da:

«17) “Erabiltzailea”: igorle nahiz hartzaile gisa posta-zerbitzuaren onura jasoko duen pertsona fisiko nahiz juridiko oro».

l) Hemeretzigarren puntuaren ordezkari testu hau jarri da:

«19) “Funtsezko baldintzak”: estatu kideak posta-zerbitzuetan baldintzak finkatzera bultzatzen dituzten interes

orokorreko arrazoi ez-ekonomikoak; arrazoi horien artean daude korrespondentziaren bortxaezintasuna; gai arriskutsuak garraiatzean sarean segurtasunez funtzionatzea; lege, arautegi, administrazio-erabaki edo nazioko eta Erkidegoko zuzenbideari jarraiki solaskide sozial nazionalen artean negoziatutako hitzarmen kolektibo bidez ezarritako laneko eta gizarte-segurantzako hitzarmenak errespetatzea; eta, justifikatutako kasuetan, datuen babesa, ingurumenaren zaintza eta lurralde-antolamendua. Datuen babesaren barruan, datu pertsonalen babesa, transmititutako nahiz biltegitutako informazioaren konfidentzialtasuna eta intimitatearen babesa ere sar daitezke».

m) Puntu hau erantsi da:

«20) “Tarifa aleko finkatu zaien zerbitzuak”: zerbitzu unibertsalaren hornitzailearen zein hornitzaileen baldintza orokorretan, banakako posta-bidalketei aplikatzekoetan, prezioa finkatuta duten posta-zerbitzuak».

3) Hirugarren artikulua honela aldatu da:

a) Hirugarren paragrafoan, lehen lerrokadaren ordezkari testu hau jarri da:

«3. Estatu kideek neurriak hartuko dituzte, zerbitzu unibertsala gutxienez asteko bost lanegunetan bermatzeko, inguruabar edo baldintza geografiko apartekoetan salbu, eta, gutxienez, honako hauek har ditzan barne:

- bilketa

- pertsona fisiko edo juridikoaren helbidean edo, salbuespen kasuetan eta araugintzako agintari nazionalak erabakitako baldintzetan, instalazio egokietan entregatzea».

b) Bosgarren paragrafoko testuaren ordezkari testu hau jarri da:

«5. Araugintzako agintari nazionalak zerbitzu unibertsala estaltzeko pisu-muga handitu ahal izango diete posta-paketei, gehienez 20 kg-raino, eta posta-pakete horiek helbidean entregatzeko araubide bereziak xedatu.

Estatu kide bakoitzak posta-paketeetarako zerbitzu unibertsalaren estaldurarako finkatutako pisu-muga gorabehera, beste estatu kide batzuetatik jasotako 20 kg-rainoko posta-paketeak banatu egingo direla bermatu behar dute.

c) Honako testu hau jarri da 6. paragrafoaren ordezkari:

«6. Posta-bidalketen gutxienezko eta gehienezko neurriak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Posta Batasun Unibertsalaren kasuan kasuko xedapenetan ezarritakoak izango dira».

Lehen lerrokadan xedatutakoaren haritik, plazaratu beharreko informazioa nola ezagutzera eman jakinaraziko diote estatu kideek Batzordeari.

4) Laugarren artikulua ordez, testu hau jarri da:

«4. artikulua

1. Estatu kideek zerbitzu unibertsala bermatzeaz arduratu behar dute, eta eginbehar hori betetzeko hartutako neurriak Batzordeari jakinaraziko dizkiote. Agiri honetako 21. artikuluan aipatu den Komiteak estatu kideek zerbitzu unibertsala bermatzeko hartutako neurrien berri jasoko du.

2. Estatu kideek zerbitzu unibertsalaren hornitzaile bat edo hainbat izenda ditzakete, lurralde oso-oso estalita gera dadin. Halaber, estatu kideek hainbat enpresa izendatu ahal izango dituzte, zerbitzu unibertsalaren hainbat elementu eta/edo lurraldearen hainbat zati estaltzeko. Halakoetan, haien eskubideak eta eginbeharrak finkatuko dituzte Erkidegoko zuzenbideari jarraiki, eta ezagutarazi egingo dituzte ondoren. Bereziki, zerbitzu unibertsala esleitzeko baldintzak gardentasunaren, bereizkeriarik ezaren eta proportzionaltasunaren printzipioetan oinarritzen direla bermatzeko neurriak onetsiko dituzte estatu kideek. Horrela, zerbitzu unibertsalaren jarraipena bermatuko dute, gizarte- eta lurralde-kohesioan duen zeregin garrantzitsua kontuan hartuta.

Zerbitzu unibertsalerako zer hornitzaile izendatu duten edo dituzten jakinarazi beharko diote estatu kideek Batzordeari. Zerbitzu unibertsalaren hornitzaileen postuak berrikusi egingo dira aldiaren behin, bai eta aztertu ere, artikulua honetan agintzen diren printzipio eta baldintzen arabera. Dena delarik ere, inbertsioei errentagarritasuna ateratzeko behar adinako epealdia bermatu beharko dute estatu kideek.

5) Bosgarren artikuluko 2. paragrafoaren ordez, honako testu hau eman da:

«2. Lehen paragrafoko xedapenek ez dituzte estatu kideek interes publikoaren inguruko exijentzien arabera onesten dituzten neurriak oztapatuko. Kontuan izan behar da, exijentzia horiek Tratatuak aitortutakoak direla, bereziki 30. eta 46. artikuluetan; horietan, besteak beste, moralitatea eta segurtasun publikoa, zigor arloko ikerketak barne, eta ordena publikoa lantzen dira».

6) Seigarren artikulua ordez, testu hau jarri da:

«6. artikulua

Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte, zerbitzu unibertsalaren hornitzaileak edo hornitzaileek posta-zerbitzuen erabiltzaile eta hornitzaileei argibide zehatz eta eguneratuak eman diezazkieten, aldiaren behin, eskainitako zerbitzu unibertsalaren ezaugarriak buruz, batez ere zerbitzuetara jotzeko baldintza orokorre, prezioei eta kalitate mailari dagokienez. Informazio hori behar bezala argitaratuko da.

7) Hirugarren kapituluaren izenburuaren ordez, hau jarri da:

«Zerbitzu unibertsalen finantzaketa ».

8) Zazpigarren artikulua ordez, testu hau jarri da:

«7. artikulua

1. Estatu kideek ezin izango dituzte posta-zerbitzuak ezarri eta emateko eskubide berezi edo eskusiboak eman edo indarrean izan. Estatu kideek zerbitzu unibertsala finantzatu ahal izango dute, 2. 3. eta 4. paragrafoetan aurreikusitako sistema bat edo hainbat erabiliz nahiz Tratatuarekin bateragarria den beste edozein sistema erabiliz.

2. Halaber, zerbitzu unibertsalak bermatu ahal izateko, lizitazioa jo ahal izango dute estatu kideek. Horretarako, baina, kontratazio publikoaren alorrean aplikagarriak diren arauak eta erregelamentazioak hartuko dituzte aintzat, elkarriketa lehiakorren prozedura eta aurretiazko lizitazio-deialdidun edo bako prozedura negoziatua barne. Arlo horretan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko martxoaren 31ko 2004/17/EE Zuzentarauan* uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan kontratuak esleitzeko prozeduren koordinazioari buruz ezarritakoa errespetatuko dute.

3. Zuzentzarau honetan zerbitzu unibertsalaren inguruan xedatutako eginbeharrek kostu garbia eskatzen dutela —I. eranskina kontuan hartuz kalkulatu— eta zerbitzu unibertsalaren hornitzailearentzat edo hornitzaileentzat bidegabeko finantza-zama direla uste badu estatu kide batek, honako hauek sortu ahal izango ditu:

a) ukitutako enpresa edo enpresak fondo publikoen bidez konpentsatzeko mekanismo bat

b) zerbitzu unibertsalaren eginbeharren kostu garbia zerbitzuen hornitzaileen eta erabiltzaileen edo bien artean banatzeko mekanismo bat

4. Kostu garbia 3. paragrafoko b) idatz-zatiaren arabera banatzen bada, konpentsazio-fondo bat eratu ahal izango dute estatu kideek. Zerbitzuaren hornitzaileei eta erabiltzaileei edo biei kanon bat aplikatzearen bidez finantzatu ahal izango da, eta onuradunarekin edo onuradunekin zerikusirik ez duen organo batek kudeatuko du. Bederatzigarren artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den zerbitzuaren hornitzaileei baimena eman aurretik, fondo horretara ekarpen bat egin dezatela edo zerbitzu unibertsalaren betekizunak bete ditzatela eskatzeko aukera izango dute estatu kideek. Hirugarren artikuluan eman diren zerbitzu unibertsalaren hornitzailearen edo hornitzaileen

* L 134 EO, 2004-04-30ekoa, 1. or. Zuzentzarau hori Kontseiluaren 2006/97/EE Zuzentzarauak —L 363 EO, 2006-12-20koa, 107. or.— aldatu zuen azkenekoz.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eginbeharrak horrela finantzatu ahal izango dira.

5. Aurreko 3. eta 4. paragrafoetako konpentsazio-fondoa sortu eta finantza-ekarpenak finkatzean gardentasunaren, bereizkeriarik ezaren eta proportzionaltasunaren printzipioak errespetatu behar dituzte estatu kideek. Paragrafo horietan ezarritakoari jarraiki hartutako erabakiak irizpide objektibo, egiaztagarri eta ezagunetan oinarrituko dira.

9) Laugarren kapituluaren izenburuan hauxe jarri da:

«Posta-zerbitzuen prestazioari eta sarerako sarbideari aplikatzeko baldintzak»

10) Bederatzigarren artikulua ordez, testu hau jarri da:

«9. artikulua

1. Zerbitzu unibertsalean sartzen ez diren zerbitzuetan, funtsezko baldintzak betetzen direla bermatzeko behar den guztietan emango dituzte estatu kideek baimen orokorrak.

2. Zerbitzu unibertsalean sartzen diren zerbitzuetan, berriz, funtsezko baldintzak eta zerbitzu unibertsala betetzen direla bermatzeko behar den guztietan jo ahal izango dute estatu kideek baimen-prozeduretara —banakako lizentziak ere barne hartzen dituzte—.

Baimenak emateko:

- Zerbitzu unibertsalaren obligazioak bete beharko dira.

- Bidezkoa eta justifikatua denean, kasuan kasuko zerbitzuei kalitate-, erabilgarritasun- eta eraginkortasun-baldintzak aplikatuko zaizkie.

- Dagokionean, 9. artikuluan aipatu diren banaketa-mekanismoetara finantza-ekarpen bat egin beharko da, zerbitzu unibertsalak kostu garbia sortzen badu eta zerbitzu unibertsalaren hornitzailearentzat nahiz hornitzaileentzat bidegabeko zama bada; hornitzaileak 4. artikuluan xedatutakoari jarraiki izendatuko dira.

- Behar denean, finantza-ekarpen bat egin beharko da, 22. artikuluan aipatu diren araugintzako agintari nazionalen funtzionamendu-kostuei erantzuteko.

- Dagokionean, legeria nazionalak agindutako lan-baldintzak konplitu beharko dira, edo betekizun hori ezarri.

Lehen marran eta 3. artikuluan azaldu diren eginbehar eta baldintzak zerbitzu unibertsalerako izendatutako hornitzaileei bakarrik aplikatu ahal izango zaizkie.

Laugarren artikuluan araututakoari men eginez zerbitzu unibertsalaren hornitzaile izendatu diren enpresen kasuan salbu, baimenek ezin izango dute:

- Kopuru-mugarik izan.

- Zerbitzu unibertsalerako eginbeharrak betearazi eta,aldi berean, kostuak banatzeko mekanismo bati finantza-ekarpenak egitera behartu, zerbitzu unibertsalaren elementu edo lurralde nazionalaren zati berberetarako.

- Sektoreak berezkoa ez duen beste legeria nazional bat dela-eta enpresetan dagoeneko aplikatzen diren baldintzak bikoiztu.

- Zuzentarau honetan xedatutakoa betetzeko beharrekoak ez diren baldintza tekniko nahiz operatiboak inposatu.

3. Lehen eta bigarren paragrafoetako prozedura, betekizun eta baldintzak gardenak, erabilgarriak, bereizkeriarik gabeak, proportzionatuak, zehatzak eta argiak izango dira eta irizpide objektiboetan oinarrituko dira. Bestalde, alde zuzenetik ezagutaraziko dira. Eskatzaileari baimena ezeztatzeko edo osotasunean nahiz partzialki kentzeko egon diren arrazoien berri ematen zaiola egiaztatuko dute estatu kideek.

11) Hamargarren artikuluko 1. paragrafoaren ordez, honako testu hau eman da:

«1. Batzordearen proposamenari eta Tratatuaren 47. artikuluko 2. paragrafoari eta 55. eta 95. artikuluei jarraiki, publikoari zuzendutako posta-zerbitzuen merkataritza-eskaintzari aplikatzeko prozedurak —9. artikuluan azaltzen dira— bateratzeko beharrezko neurriak onetsiko dituzte Europako Parlamentuak eta Kontseiluak».

12) Hamaikagarren artikulua ordez, hauxe jarri da:

«11. artikulua

Batzordearen proposamenari eta Tratatuaren 47. artikuluko 2. paragrafoari eta 55. eta 95. artikuluei jarraiki, zerbitzu unibertsalaren erabiltzaileek eta hornitzaileak nahiz hornitzaileek posta-sarera gardentasunez eta bereizkeriarik gabe sartzeko aukera dutela bermatzeko beharrezko neurriak onetsiko dituzte Europako Parlamentuak eta Kontseiluak».

13) Artikulu hau txertatu da:

«11 bis artikulua

Erabiltzaileen interesak babesteko edo lehiakortasun erreala ahalbidetzeko beharrezkoa izanez gero, zerbitzu unibertsalaren baitan eskaintako posta-zerbitzuetara edo posta-azpiegiturako elementuetara gardentasunez eta bereizkeriarik gabe sartzeko baldintzak ahalbidetuko dituzte estatu kideek. Hona hemen

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

zerbitzuok: posta-kodearen sistema, helbideen datu-basea, posta-kutxak, banaketa-postontziak, helbide-aldaketei buruzko informazioa, birbidalketa-zerbitzua eta igorleari itzultzeko zerbitzua. Xedapen hori gorabehera, posta-sare publikorako irispidea gardena, proportzionala eta bereizkeriarekin gabea dela bermatzeari begira neurriak hartu ahal izango dituzte estatu kideek».

14) Hamabigarren artikulua ordez, hauxe jarri da:

«12. artikulua

Zerbitzu unibertsaleko zerbitzuen tarifak finkatzerakoan honako printzipio hauek betetzen direla jagon behar dute estatu kideek:

- Prezioak arrazoizkoak izango dira, eta erabiltzaile guztiei emango diete zerbitzu horiek eskuratzeko aukera, kokapena gorabehera eta baldintza nazional berariazkoak aintzat hartuta. Estatu kideek doako posta-zerbitzuak eskaini edo ezarri ahal izango dituzte, itsuentzat eta ikusmen murriztukoentzat.

- Salneurriak kostuei erreparatuz finkatuko dira, eta zerbitzu unibertsala eraginkortasunez emateko pizgarriak eskaini behar dituzte. Interes publikoko arrazoiengatik beharrezkoa bada, lurralde osoan eta/edo aleko tarifaren arabera emandako mugaz haraindiko zerbitzuei nahiz beste posta-bidalketa batzuei tarifa bakarra ezartzea erabaki ahal izango dute estatu kideek.

- Tarifa bakarra aplikatu arren, baina, zerbitzu unibertsalaren hornitzaileak edo hornitzaileek eskubidea izango dute erabiltzaileekin prezioei buruzko banakako akordioak sinatzeko.

- Tarifak gardenak izango dira, eta ez dute bereizketarik egingo.

- Zerbitzu unibertsalaren hornitzaileek tarifa bereziak aplikatzen dituztenean (enpresei zuzendutako zerbitzuetan, igorpen masiboen igorleei edo hainbat erabiltzailearen posta prestatzen dutenei esate baterako), gardentasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak errespetatu beharko dituzte, tarifei eta horiei lotutako baldintzei dagokienez. Tarifok eta horiei lotutako baldintzak berdintasunez aplikatuko dira, hirugarren interesdun guztien artean eta horien eta pareko zerbitzuak ematen dituzten zerbitzu unibertsalaren hornitzaileen artean. Tarifa horiek antzeko baldintzadun bidalketak egiten dituzten erabiltzaileei ere proposatuko zaizkie, partikularrei eta enpresa txiki eta ertainei bereziki».

15) Hamalagarren artikulua honela aldatu da:

a) Honako testu hau jarri da, 1., 2. eta 3. paragrafoen lekuan:

«1. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte,

zerbitzu unibertsalaren hornitzaileek kontabilitatea artikulua honetan xedatutakoaren arabera eraman dezaten.

2. Zerbitzu unibertsalaren hornitzaileak edo hornitzaileek kontuak bakoitza bere aldetik eramango dituzte, barneko kontabilitate-sistemetan. Horrela, zerbitzu unibertsala osatzen duten zerbitzu eta produktuak eta zerbitzu unibertsalekoak ez direnak argi eta garbi egongo dira bereizita. Kontabilitate mota hori estatu kideek zerbitzu unibertsalaren kostu garbia kalkulatu behar dutenerako da erabilgarria. Barneko kontabilitate-sistemak koherentziaz aplikatutako eta objektibotasunez justifikatzeko moduko kontabilitate-printzipioetan funtsatuko dira.

3. Laugarren paragrafoan xedatutakoaren kalterik gabe, 2. paragrafoko kontabilitate-sistemetan honela egotziko dira kostuak:

a) Zerbitzu nahiz produktu bati zuzenean egotzekoak diren kostuak zerbitzu edo produktu horri egotziko zaizkio.

b) Kostu komunak, hau da, zuzenean zerbitzu nahiz produktu bati egotzekoak ez direnak, honela egotziko dira:

i) Ahal den guztietan, kostu komunak egotzeko horien jatorriak aztertuko dira zuzenki.

ii) Zuzeneko azterketa egitea ezinezkoa denean, kostu komunen kategoriek esleipen edo egozpen zuzeneko egiteko modukoa den kategoria batekin edo kategoria multzo batekin duten zeharkako lotura hartuko da aintzat. Zeharkako lotura kostu alderagarrien egituretan oinarrituko da.

iii) Kostuak egotzeko zuzeneko nahiz zeharkako neurriak aurkitzen ez denean, egozpen-faktore orokor bat erabiliko da, kostuen kategoria egotzeko. Faktore hori, batetik, zerbitzu unibertsal bakoitzari eta, bestetik, gainerako zerbitzuei zuzenean eta zeharka esleitutako edo egotzitako gastuen arteko erlazioaren arabera kalkulatu da.

iv) Kostu komunak beharrezkoak dira bai zerbitzu unibertsaletarako bai unibertsalak ez direnetarako, eta moldez egotziko dira, hau da, kostuen parametro berberak aplikatuko zaizkie zerbitzu unibertsalei eta unibertsal ez direnei».

b) Zortzigarren paragrafoko testuaren ordez, honako hau jarri da:

«8. Estatu kide batek ez badu, 7. artikuluan baimendutakoari jarraiki, zerbitzu unibertsala finantzatzeko mekanismoren bat erabili eta araugintzako agintari nazionalak uste badu estatu kide horretan izendatutako zerbitzu unibertsalaren hornitzaileek ez dutela laguntza publikorik jasotzen (ez ezkutuan ez beste era batera) eta merkatuan lehia bete dagoela, artikulua honetan

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

xedatutakoa ez aplikatzea erabaki dezake agintaritzaren horrek».

c) Paragrafo hauek erantsi dira:

«9. Halarik ere, merkatua erabat irekitzeko behin betiko datoren aurretik izendatutako zerbitzu unibertsalaren hornitzaileari artikulua honetako xedapenak aplikatu ahal izango zaizkio, baldin eta zerbitzu unibertsalaren beste hornitzaile bati edo batzuei ez bazaie esleitu zerbitzua. Araugintzako agintari nazionalak jakinararen gainean jarriko du Batzordea, halako edozein erabaki hartu aurretik.

10. Konpentsazio-fondo batean kotizatzeke betebeharrak duten posta-zerbitzuen hornitzaileei kontuak egoki bereizteke eska diezaiekete estatu kideek, fondoak behar bezala funtzionatzen duela bermatuko dute-eta horrela.

16) Hamaseigarren artikulua honela aldatu da:

a) Hirugarren paragrafoan, bigarren marraren lekuan, testu hau jarri da:

« - Europako Parlamentua eta Kontseilua, Erkidego barruko mugaz gaindiko zerbitzuetarako —ikus II. Eranskina—. Etorkezinean arauak aurrerapen teknikoari eta merkatuaren bilakaerari egokitzean, 21. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kontrolpeko arautze-prozedura hartuko da kontuan.

b) Honako testu hau jarri da 4. paragrafoaren ordez:

«Funtzionamenduaren kalitate-kontrola urtean behin egingo da, gutxienez. Zerbitzu unibertsalaren hornitzaileekin inolako loturarik ez duen kanpoko erakunderen bat arduratuko da horretaz. Kontrolerako, 21. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera finkatuko diren baldintza normalizatuak baliatuko dira. Emaitzak txostenetan jasotako, gutxi jota, urtean behin argitaratuko dira».

17) Hamazortzigarren artikuluan, 1. eta 2. paragrafoen ordez testu hau txertatu da:

«1. Hamaseigarren artikuluari jarraiki, Erkidego barruko mugaz harandiko zerbitzuen kalitate-arauak II. eranskinean arautu dira.

2. Araugintzako agintari nazionalak salbuespenak ezarri ahal izango dituzte II. eranskinean jasotako kalitate-arauetan, azpiegitura- edo geografia-arrazoiengatik aparteko egoerak justifikatzen direnean. Araugintzako agintari nazionalak halako salbuespenak ezartzen dituztenean, Batzordeari jakinaraziko dizkiote berehala. Hark txosten bat aurkeztuko du urtean, 21. artikuluan aipatuta dagoen Komitean aurreko 12 hileetan jasotako jakinarazpenei buruz».

18) Hemeretzigarren artikulua ordez, hauxe jarri da:

«19. artikulua

1. Posta-zerbitzuen erabiltzaileen erreklamazioak izapidetzeko prozedura garden, xume eta merkeak eskaini behar dituzte posta-zerbitzuen hornitzaileek, eta estatu kideak hori bermatzeaz arduratuko dira. Erreklamazioak galeraren, lapurretaren, narriaduraren eta zerbitzuen kalitate-arauak ez betetzearen ondoriozkoak izango dira, batik bat, eta operadore batek baino gehiagok esku hartzen duten kasuetan erantzukizunak argitzeko prozedurak ere sartzen dira. Edonola ere, kalte-ordainen inguruko nazioko eta nazioarteko xedapenak betetzekoak izango dira.

Estatu kideek neurriak hartuko dituzte, lehen lerrokadan aipatutako prozedurak gai izan daitezkeen auziak ekitatez eta arrazoizko epean konpontzeko. Gainera, justifikatuta dagoenean, errenbolsorako eta/edo kalte-ordainak emateko sistema aurreikusiko dute.

Era berean, judizioz kanpoko sistemak ere sustatuko dituzte, posta-zerbitzuen hornitzaileen eta erabiltzaileen arteko auziak konpontzeko.

2. Estatu kideak eta Erkidegoko zuzenbidean aurreikusita dauden beste errekurtso- nahiz konpontze-aukera batzuk gorabehera, zerbitzu unibertsalaren baitan posta-zerbitzuak ematen dituzten enpresei aurkeztu dizkieten eta erantzun egokia jaso ez duten erreklamazioak agintari nazional eskudunen esanetara jartzeko aukera izan behar dute erabiltzaileek, banaka edo, estatu kideak zuzenbidean ahalbidetzen duenean, erabiltzaileen eta/edo kontsumitzaileen interesak ordezkatzen dituzten erakundeekin batera. Eta estatu kideak hori bermatzeaz arduratuko dira. Hamaseigarren artikuluan xedatutakoaren haritik, estatu kideen ardurak izango dira, zerbitzu unibertsalaren hornitzaileek eta, dagokienez, zerbitzu unibertsalaren esparruan jarduten duten enpresek, jardueraren kontrolari buruzko urteko txostenarekin batera, zenbat erreklamazio jaso dituzten eta nola izapidetu ziren adierazten duen informazioa argitaratzen dutela zaintzea.

19) Hogeita batgarren artikulua ordez, hauxe jarri da:

«21. artikulua

1. Batzordeari Komite batek lagunduko dio.

2. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. bis artikuluko 1. paragrafoetik 4.era bitartekoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekeak, eta 8. artikuluan xedaturikoa ere errespetatuko da».

20) Hogeita bigarren artikulua ordez, hauxe jarri da:

«22. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Estatu kide bakoitzak araugintzako agintari nazional bat edo gehiago izendatuko ditu postaren sektorerako. Horiek, posta-operadoreekin alderatuta, legearen aurrean ezberdinak izango dira eta funtzionamenduan independenteak. Posta-zerbitzuen hornitzaileen jabetza edo kontrola duten estatu kideak araugintza-funtzioaren eta jabetzari nahiz kontrolari lotutako jardueren artean egiturazko bereizketa egoteaz arduratu behar dira.

Estatu kideek Batzordeari emango diote Zuzentarau honek araututako zereginak egiteko izendatu dituzten araugintzako agintari nazionalen berri. Estatu kideek araugintzako agintari nazionalen eginkizunak ezagutaraziko dituzte, erraz eskuratzeko moduko bitartekoen bidez, batez ere eginkizun horiek organo bati baino gehiagori dagozkienean. Beste betebeharrak ere izango dute estatu kideek: bidezkoa denean, guztien intereseko gaitan agintari horiek eta lehiaren eta kontsumitzaileen babesaren inguruko arauak aplikatzeko ardura duten agintari nazionalak lankidetzan jardun dezaten zaintzea.

2. Araugintzako agintari nazionalen xedea hauxe izango da, bereziki: Zuzentarau honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla bermatzea, eta, horretarako, zerbitzu unibertsalaren prestazioa bermatuko duten gainbegiratze- eta arautze-prozedurak arautzea. Halaber, posta-sektoreko lehiaren gaineko arautegia betetzen dela bermatzea ere izango da haien helburua.

Araugintzako agintari nazionalak lankidetzan estuan jardungo dute euren eginkizunetan, eta elkarri lagunduko diote, Zuzentarau hau dagozkien erakundeetan aplikatzea ahalbidetzeko.

3. Estatu kideen ardura izango da, orobat, estatuan mekanismo eraginkorrak daudela zaintzea, araugintzako agintari nazional baten erabakiak ukitutako posta-zerbitzuen edozein erabiltzailek edo hornitzailek erakunde independente baten aurrean errekurritzerik izan dezan. Errekurtsioa ebatzi bitartean, araugintzako agintari nazionalen erabakiak baliozkoa izaten jarraituko du, harik eta errekurtsio-organoak kontrakoa erabakitzen duen arte».

21) Kapitulu hau txertatu da:

« 9 bis KAPITULUA

Informazioa ematea

22 bis artikulua

1. Estatu kideak arduratuko dira posta-zerbitzuen hornitzaileek beharrezko informazio guztia, finantzariora eta zerbitzu unibertsalaren prestazioari buruzkoa barne, batik bat araugintzako agintari nazionalen ematen dietela zaintzeaz. Hauek dira helburuak:

a) Zuzentarau honetan edo honen babesean hartutako erabakietan ezarritakoa betetzen den egiaztatzerik izan dezatela araugintzako agintari nazionalak.

b) Argi eta garbi zehaztutako estatistikak egitea.

2. Eskatzen dietenean, posta-zerbitzuen hornitzaileek ardura handiz emango dute informazio hori, eta, behar izanez gero, isilpean, araugintzako agintari nazionalak eskatzen dituen epeak eta zehaztasun maila errespetatuz, betiere. Araugintzako agintari nazionalak eskatutako informazioa misioa betetzeko beharren arabera izango da. Araugintzako agintari nazionalak arrazoitu egin beharko du informazio-eskaera.

3. Araugintzako agintari nazionalak beharrezko informazioa emango diote Batzordeari, hark eskatzen dienean, Zuzentarau honi jarraiki dagozkion eginkizunak aurrera eramanez, eta hori horrela egiten dela bermatzea estatu kideen erantzukizuna izango da.

4. Araugintzako agintari nazional batek uste badu informazioa konfidentziala dela, enpresa-konfidentzialtasuna babesteari buruzko Erkidegoko eta barruko arauak jarraiki, Batzordeak eta araugintzako agintari nazional ukituek isilpean gordeko dute informazio hori».

22) Hogeita hirugarren artikulua honako honek ordezkatu du:

«23. artikulua

Lau urterik behin, eta lehen aldiz 2013ko abenduaren 31n beranduenez, Batzordeak Zuzentarau honen aplikazioaren inguruko txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Bertan, sektorearen bilakaerari —joera ekonomiko, sozial eta laboralen eta teknologiaren alorretan bereziki— eta zerbitzuaren kalitateari buruzko informazioa jasoko da. Txostenarekin batera, dagokionean, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari zuzendutako proposamenak aurkeztuko dira».

23) Artikulu hau txertatu da:

«23 bis artikulua

Batzordeak lagundu egingo die estatu kideei Zuzentarau hau aplikatzen, besteak beste, zerbitzu unibertsalaren kostu garbia kalkulatzeko.

24) Kendu egin dira 24., 25., 26. eta 27. artikulua.

25) I. eranskinean hauxe txertatu da:

«I. ERANSKINA

Zerbitzu unibertsalaren kostu garbia kalkulatzeko orientabideak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

A zatia: Zerbitzu unibertsalaren obligazioen zehaztapena

Posta-zerbitzuen hornitzaileari posta-zerbitzua eremu geografiko jakin batean emateko kasuan kasuko estatu kideak beteazten dizkion eginbeharrak dira zerbitzu unibertsalaren obligazioak —3. artikuluan aipatu dira—. Beharrezkoa denean, honako hauek ere izan daitezke: zerbitzu hori eremu geografiko osoan prezio berean ematea eta zerbitzu batzuk doan ematea itsuei eta ikusmen murriztukoiei.

Besteak beste, hauek sartzen dira:

- Zuzentarau honetan aurreikusitakoa baino entregatzeko egun gehiago,
- zerbitzu unibertsalaren obligazioak betetzeko, sarbide-guneak eskuragarriak izatea
- zerbitzu unibertsalaren tarifikazioak arrazoizkoak izatea
- zerbitzu unibertsalaren prezioak uniformeak izatea
- zerbitzu batzuk doan ematea, itsuei eta ikusmen murriztukoiei

B zatia: Kostu garbia kalkulatzeko

Araugintzako agintari nazionalak bitarteko guztiak aztertuko dituzte, zerbitzu unibertsalaren obligazioak eraginkortasunez betetzen dituzten posta-zerbitzuen hornitzaileei —izendatuta daudenei eta ez daudenei— pizgarri egokiak eskaintzeko.

Zerbitzu unibertsalaren obligazioaren kostu garbian zerbitzu unibertsalarekin zerikusia duen edozein kostu sartzen da, baldin eta funtzionamendurako beharrezkoa bada. Zerbitzu unibertsalaren obligazioen kostua kalkulatzeko, zerbitzu unibertsala emateko izendatuta dagoen hornitzailearentzat zerbitzu unibertsalaren eginbeharrekin jarduteak duen kostu garbiaren eta eginbehar horien pean ez jarduteak duenaren arteko aldea ateratzen da.

Kalkulu horretan, egokitzat jotzen den beste edozein elementu ere hartu behar da kontuan, hala nola, zerbitzu unibertsala emateko izendatu den enpresak merkatuan dituen abantailak eta abantaila inmaterialak, arrazoizko mozkinak lortzeko eskubidea eta kostuetan efizientzia lortzeko helburua duten pizgarriak.

Arreta berezia eskaini behar zaio honi: zerbitzu unibertsalerako izendatutako edozein hornitzailek zerbitzu unibertsalaren obligazioa inposatu ez balitzaio saihestuko zukeen kostua behar bezala ebaluatzeari. Kostu garbia kalkulatzekotan, zerbitzu unibertsalaren operadoreak jaso dituen mozkinak, baita mozkin inmaterialak ere, balioetsi behar dira.

Kalkulurako, honako hauei egotzekoak diren kostuak hartuko dira kontuan:

- i) galerak izanda edo ohiko merkataritza-jardunbidearekin bat ez datozen baldintzetan bakarrik eman daitezkeen zerbitzuen elementuei; A zatian sartu diren zerbitzuen elementuak sar daitezke kategoria horretan
- ii) kasuan kasuko zerbitzuaren kostua, sortutako sarrerak eta estatu kideak finkatzen dituen prezio uniforme guztiak aintzat hartuta, galerak izanez edo ohiko merkataritza-jardunbidearekin bat ez datozen baldintzetan bakarrik artatu daitezkeen erabiltzaileei edo erabiltzaile taldeei

Kategoria horretan sartzen dira, zerbitzu unibertsalaren obligazioa inposatu ez zaion merkataritza-operadoreak artatuko ez litzuzkeen erabiltzaileak edo erabiltzaile taldeak.

Bereizita eta mozkinak eta zuzeneko nahiz zeharkako kostuak bi aldiz zenbatzea saihestuz kalkulatu behar da zerbitzu unibertsalaren obligazioen berariazko alderdien kostu garbia. Zerbitzu unibertsalerako izendatutako hornitzaileari zerbitzu unibertsalaren obligazioak direla-eta sortuko zaion kostu garbia ateratzeko, zerbitzu unibertsalaren obligazioen osagaien kostu garbiak batu behar dira, mozkin inmateriala aintzakotzat hartuta, betiere. Araugintzako agintari nazionalari dagokio kostu garbia egiaztatzea. Zerbitzu unibertsalaren hornitzaileak nahiz hornitzaileek lankidetzan jardungo dute araugintzako agintari nazionalarekin, horrek kostu garbia egiaztatzeko aukera izan dezan.

C zatia: Zerbitzu unibertsalaren obligazioen kostu garbiak berreskuratzea

Zerbitzu unibertsalaren obligazioen ondoriozko kostu garbiak berreskuratu edo finantzatzeko, gerta liteke merkataritzakoak ez diren baldintzetan ematen dituzten zerbitzuak konpentsatu beharra egotea, zerbitzu unibertsalerako izendatutako hornitzaileei. Konpentsazio horretarako finantza-izaerako transferentziak egin behar direnez, transferentziok objektibotasunez, gardentasunez, bereizkeriarik gabe eta proportzioz egin daitezen zaindu behar dute estatu kideek. Horrek esan gura du, transferentziak ahalik eta bihurturik txikiena sortu behar dutela lehia eta erabiltzaileen eskarian.

Kosten banaketa egiteko fondoetan oinarritutako mekanismoek —7. artikularen 4. paragrafoan aipatu dira— sistema garden eta neutroa erabili beharko lukete kontribuzioak biltzeko. Horrela, enpresek jasandako eta jasanarazitako eragiketen gaineko kontribuzioak bikoiztea saihestuko litzateke.

Fondoa administratzeaz arduratzen den organo independenteari egokituko zaio, kasuan kasuko estatu kideko zerbitzu unibertsalaren obligazioen kostu garbian parte hartzeko eskatu zaien enpresetan kontribuzioak jasotzeko ardura, bai eta fondoko ordainketak jasotzeko eskubidea duten enpresei zor zaizkien zenbatekoak nola transferitzen zaizkien gainbegiratzeko ere.

26) Eranskina II. eranskin bihurtuko da.

2. artikulua

1. Estatu kideek beranduenez 2010eko abenduaren 31n jarriko dituzte indarrean Zuzentarau honetan finkatutakoa betetzeko behar

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

diren lege-, arau- eta administrazio-xedapenak. Batzordea berehala jarriko dute jakinaren gainean.

Estatu kideek neurri horiek onartzen dituztenean, aipamena egingo diote Zuzentarau honi, edo aipamen horrekin batera azalduko dira argitalpen ofizialetan. Estatu kideek aipamen horren modalitateak ezarriko dituzte.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote Zuzentarau honen aplikazioari buruz ematen dituzten lege-, arau- eta administrazio-xedapenen testua.

3. artikulua

1. Bigarren artikuluan xedatutakoa gorabehera, estatu kide hauek 2012ko abenduaren 31ra arte atzeratu ahal izango dute Zuzentarau honen aplikazioa, zerbitzu unibertsalaren hornitzaileari edo hornitzaileei zerbitzuak erreserbatzen jarraitu ahal izateko:

- Txekiar Errepublika
- Grezia
- Txipre
- Letonia
- Lituania
- Luxenburgo
- Hungaria
- Malta
- Polonia

- Errumania

- Eslovakia

Dena den, Zuzentaraua egun hori baino lehen aplikatzea ere erabaki dezakete estatu kide horiek.

2. Estatu kide horiek 1. paragrafoan ezarritako aplikazioa atzeratzeko aukera erabiltzeko asmoa badute, Batzordeari jakinarazi beharko diote, 2008ko abuztuaren 27an beranduenez ere.

3. Erreserbatutako sektoreak asko jota 2012ko abenduaren 31n ezabatzen dituzten estatu kideek aukera izango dute, 2011ko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31ra bitartean, ezabatutako sektore erreserbatuaren alorreko zerbitzuentzat 97/67/EE Zuzentaruaren 9. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako baimena ukatzeko, zerbitzu unibertsalaren esparruan zerbitzuak ematen dituzten posta-operadoreei eta eurek kontrolatutako enpresei, baldin eta erreserbatutako sektore bat badute esleitura beste estatu kide batean.

4. artikulua

Zuzentarau hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

5. artikulua

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon eginga, 2008ko otsailaren 20an.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean
Presidentea
J. LENARČIČ